



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2023/04/25ean EGINDAKO OHIKO UDALBATZA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 25/04/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Josu Ezkurdia Santamaría
Maite Uribe Beristain
Maria Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Udalbatzarra, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Leire San Vicente Carrillo.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 25 de abril de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Leire San Vicente Carrillo

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD379N.kskx>

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2023/03/28an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2023ko apirilaren 18ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da ondorengo espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri:

- 2022ko aurrekontuaren likidazioa.
- 2. kreditu aldaketa.
- 3. kreditu aldaketa.
- 4. kreditu aldaketa.

Berataratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

3.- INTERESEN ERREGISTROAK (Jardueren Erregistroa eta Ondare Ondasunen Erregistroa): AITORPEN EREDUAK ONARTZEA.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, tokiko ordezkariak honako aitorpen hauek egin beharko dituzte:

- a) Balizko bateraezintasun-arrazoiei eta diru-sarrerak ematen dizkien edo eman diezazkiekeen edozein jarduerari buruzko aitorpena. Aitorpen hori Jardueren Erregistroan inskribatuko da.
- b) Ondare-ondasunei buruzko aitorpena eta mota guztietako sozietateetan parte hartzeari buruzkoa (partaidetza duten sozietateei buruzko informazioarekin), bai eta errentaren, ondarearen eta, hala badagokio, sozietateen gaineko zergen likidazioei buruzkoa ere. Aitorpen hori Ondare Ondasunen Erregistroan inskribatuko da.

Artikulu horretan bertan xedatzen denez, karguaz jabetu aurretik, kargua uztean eta agintaldia amaitzean egingo dira aitorpenak. Era berean, baldintza horiek bete egingo dira haietan jasotako egitatezko inguruabarretako edozein aldatzen denean. Nolanahi ere, adierazpen horiek Udalbatzarrak onartutako ereduetan egingo dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan xedatutako publikitate-araubidearekin.

Bestalde, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 8.1.h) artikulua ezartzen duenez, toki-erakundeek nahitaez argitaratu behar dituzte toki-ordezkarien ondasunen eta jardueren aitorpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen aurreikusitakoaren

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

arabera Antzera arautzen du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 52. artikulua.

Argitaratzeko betebeharrak horrek abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 h) artikuluan ezarritako baldintzak bete behar ditu, hau da, erregelamenduz ezarritako baldintzetan edo, modu osagarrian, Estatuko Administrazio Orokorraren esparruko interes-gatazken araudian xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, ondasun higigarrien kokapen zehatzari buruzko datuak ez dira emango, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko da.

Aurrez esandako guztia ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- “Bateraezintasunen eta jardueren aitopenen” eredu onartzea, bai eta erabaki honekin batera doan “Sozietateen Ondasunen eta Partaidetzaren Aitopenen” eredu ere (I. eranskina). Era berean, berariaz onartzen da eredu sinplifikatua, argitaratzeko soilik (II. eranskina), Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 9/2013 Legearen 8.1 h) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 52. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena.- Aitorpen-ereduak Interesen Erregistro banatan inskribatuko dira (Jardueren Erregistroa eta Ondare Ondasunen Erregistroa), eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluko 7. paragrafoan xedatutako araubidearen arabera argitaratuko dira.

Hirugarrena.- Karguaz jabetu aurretik, kargua uztean eta agintaldia amaitzean egin beharko dira aitopenenak, bai eta aitopenen horietan jasotako inguruabarretako edozein aldatzen denean ere.

Laugarrena.- Eredu sinplifikatuak urtean behin argitaratuko dira, eta, nolanahi ere, dokumentuen edukian aldaketaren bat gertatzen denean. Horrela, herritarren eskura jarritako informazioa etengabe eguneratuta egongo dela bermatuko da.

4.- GFA-KO OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUAREN ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALEN ARTEAN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENERA ATXIKITZEA: 1. ERANSKINA- kontu zenbakia egiaztatzea.

2023ko martxoaren 6ko Foru Aginduz onartutako eta GAO-n (53. Zenbakia, 2023ko martxoaren 17koa) argitaratutako GFAko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako udalen artean informazioa elkartrukatzeko esparru hitzarmena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aipatutako hitzarmenera ATXIKITZEKO ESKATZEA.

Bigarrena.- ADIERAZTEA Eskoriatzako Udalak ezagutu eta inolako eragozpenik jarri gabe onartzen duela aipatutako esparru hitzarmena bertara atxikitzeo aplikatzeko den guztian, eta bertan ezarritako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailetza

Hirugarrena.- Ahalmena ematea alkate jaunari atxikimendu hori gauzatzeko beharrezko diren dokumentuak sinatzeko.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO 5/2023 ESPEDIENTEA: KREDITU-TRANSFERENTZIA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 5/2023. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 5/2023. espedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.470.150.00.01 2023	SURADESA	11.055,96	2.200,00	8.855,96
	GUZTIRA	11.055,96	2.200,00	8.855,96

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0400.481.334.90.01 2023	DIRU LAGUNTZA:ATXORROTX EGUNA	0,00	700,00	700,00
1 0400.481.341.71.01 2023	DIRU LAGUNTZA:ATAMA KENPO MUNDUKO TXAPELKETA	0,00	1.500,00	1.500,00
	GUZTIRA	0,00	2.200,00	2.200,00

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

6.- KREDITUAK ALDATZEKO 6/2023 ESPEDIENTEA: KREDITU GEHIGARRIAK.

Kredituak aldatzeko 6/2023. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bototara jarri da, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 6/2023 espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria

Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Gastuen partida	I. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.153.30.01 2023	HIRI ALTZARIAK	235.000,00	20.000,00	255.000,00
1 0100.210.153.20.01 2023	MANTENIMENDUA:BIDE PUBLIKOEN ZOLADURA	15.000,00	20.000,00	35.000,00
1 0400.226.332.10.08 2023	EKINTZAK:LIBURUTEGIA	4.000,00	2.600,00	6.600,00
1 0400.227.334.30.27 2023	ERREKAN GORA ZERBITZUA	6.365,00	4.840,00	11.205,00
1 0600.219.491.00.01 2023	MANTENIMENDUA:TELE BANAKETA SAREA	14.400,00	4.280,00	18.680,00
1 0100.227.920.00.01 2023	GARBITASUNA:UDALETXEA	11.135,22	3.060,16	14.195,38
1 0100.227.333.10.01 2023	GARBITASUNA:KULTUR ETXEA	6.490,18	4.604,50	11.094,68
1 0100.227.326.10.01 2023	GARBITASUNA:MUSIKA ESKOLA	4.236,55	293,38	4.529,93
1 0100.227.153.40.01 2023	GARBITASUNA:UDAL BILTEGIA	1.399,19	1.211,21	2.610,40
1 0100.211.920.00.01 2023	MANTENIMENDUA:UDALETXE A	2.000,00	5.000,00	7.000,00
1 0100.601.454.00.04 2023	INBERTSIOAK:ELIZATEAK	20.000,00	110.000,00	130.000,00
GUZTIRA		320.026,14	175.889,25	495.915,39



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0200.870.000.00.01 2023	DIRUZAINZAKO GERAKINA:GASTU OROKORRETARAKO	175.889,25
FINANTZAKETA GUZTIRA			175.889,25

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

7.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN N°2/2023 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, 2020-2023 dirulaguntzen plan estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, komenigarria ikusi da planaren 2023-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea 1. LERRO ESTRATEGIKOKO (Kultura dinamizazioa) dirulaguntza programaren eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko edo aldatzeko.

Proposamenak ikusita eta Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 1. lerro estrategikoan -KULTUR DINAMIZAZIOA- ondorengo dirulaguntza programa sartzea:

D) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: LAGUNTZA IZENDUNA ATXORROTX EGUNARI

HARTZAILEAK: San Pedroko eta Intxaurtxuetako auzo-elkartea.

HELBURUA: Atxorrotxen jartzen den tabernak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea.

LORTU GURA DENA: Tabernarekin lortutako irabaziak handitzea kultura eta gizarte-onura helburuetarako erabil daitezten.

DIRULAGUNTZA MOTA: izenduna hitzarmenarekin.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 700 euro

FINANTZIAZIOA: 0400.481.334.90.01

8.- HITZARMENA SINATZEA GIPIZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALAREKIN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUEK ETA GIZARTE

2023/04/25

Ohiko Udalbatza

Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN PERTSONEN MEDIKAZIOA HOBETO ERABILTZEKO PROGRAMA GARATZEKO.

Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialarekin etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta gizarte zerbitzuak artatzen dituzten pertsonen medikazioa hobeto erabiltzeko programa garatzeko sinatu nahi den lankidetzeta-hitzarmenaren proposamena ikusi da, eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaratutako korporatibo guztiek alde bozkatutako, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aipatutako hitzarmena sinatzea.

Bigarrena.- Alkate jaunari eskumena ematea aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkartzan.

9.- UDALAREN ENERGIA PLANA ONARTZEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak, administrazio publikoei ezartzen dizkien betebeharren artean, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarriak sustatzeko energia-plan bat izatea jasotzen du.

Betebehar hori betetzeko, Efficen Researcha SL enpresari esleitu zitzaion Eskoriatzako Energia Plana idaztea, 2023ko urtarrilean idatzi dena.

Plan horren aldeko diktamena eman du Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak. Plan horretan Udal honek kontsumitzen duen energiaren diagnostikoa egiten da, kontsumoa zein den aztertu eta abiapuntua non dagoen ikusi. Eskura dauden baliabideak aztertu ondoren, 4/2019 Legeak ezarritako helburuak lortzeko egin beharreko ekintzak proposatzen ditu.

Planaren edukia ikusita, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta bertaratutako EAJ/PNVko 6 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EH BILDUKo lau zinegotziek aurka bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Efficen Research S.L. enpresak 2023ko urtarrilean egindako Eskoriatzako udal energia plana onartzea.

Bigarrena.- Plana udal webgunean argitaratzea.

BOTOEN AZALPENA:

- Nestor Arana: gure botoa, batzordean izan zen bezala, kontrakoa izango da. Plana aurrerapausoa dela zalantzan jarri gabe, edukia dagokionez hutsune esanguratsuak dituela uste dugu. Dokumentua irakurriz gero, oraindik osatu gabeko taulak, definitu gabeko atalak, egiaztatu gabeko informazioa, justifikatu gabeko lehentasunen taula eta abar dituela ikus daiteke. Horren aurrean, guk ezin dugu dokumentu horren alde bozkatu. Zehaztasunik ez duenez, uste dugu ez dela egokia udala bezalako erakunde

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria

Idazkaritza-Kontuhartzailletza

batek erabakiak hartu ahal izateko; erdibideko lana da, eta garapen handiagoa eskatzen du. Eta gehien kezkatzen gaituena da lehentasunen taula bat agertzen dela eta inon ez dela justifikatzen edo argudiatzen zertan oinarritu diren proposamen horiek egiteko. Informazio asko dago osatu gabe eta erreferentziarik gabe, eta beraz, ezin dugu informazioa kontrastatu eta ados gaudela esan. Ondorioz, akatsak ditu, eta horregatik uste dugu ezin duela udalbatzarrak onartu. Bigarrenik, eta horregatik, bere garaian udal aurrekontuen aldeko botoa eman genuen, hori baitzen eskatzen genuen puntuetako bat, plan energetiko baten beharra ikusten dugu, eta kontuan hartzen badugu Eskoriatzan kontsumitzen den energia guztiaren % 3 baino ez dela udal-zerbitzuetan kontsumitzen dena, % 97ko kontsumo hori proiektu honetatik kanpo geratzen da. Eta guretzat gai hori oso garrantzitsua da, udalerrian egiten diren ekintza horiek guztiek udalean ere eragina dutelako, eragin ekonomikoa. Gainera, dokumentuan puntu horri buruzko aipamen bat egiten da, baina hor zintzilik geratzen da; badirudi noizbait gai hori jorratu dela, baina hor geratzen da. Uste dugu gai horri heldu behar zaiola, 2030a hemen dagoelako. Horregatik, gure ustez, lana motz samar geratu da, eta are gehiago, horretarako urtebete baino gehiago izan dela kontuan hartuta. Dokumentu honek Eskoriatzan duen eragina txikia dela ikusten dugu. Guk, bere garaian, gaia aurrekontuekin batera aztertu zenean, apustu handiagoaz hitz egiten genuena, dokumentu handinahiagoa. Motz samar geratu dela ikusten dugu. Laburbilduz, honako hauek dira arrazoi nagusiak: lehenik eta behin, hutsune larriak dituela eta, bigarrenik, Eskoriatzako kontsumoaren ikuspegitik, bere ekintza-eremua laburra dela, oso mugatua. Horregatik, gure botoa kontrakoa da.

- Josu Ezkurdia: *beno, nik gauza pare bat komentatu nahi nituzke. Alde batetik, planteatu dituzun galdera guztien aurrean, "nire ustez", "nire ustez", gehitu beharko zenukeela uste dut. Dokumentu hori oso dokumentu tekniko da, arloko udal-teknikariak aukeratutako kanpoko enpresa batek egingina, eta plangintza ere hainbat udal-teknikariarekin adostu da. Plangintzari buruz esan duzun guztia zure iritzia dela uste dut, eta errespetatu egiten dut, baina, hona ez gara etorri iritzia ematera, dokumentu tekniko bat onartzera baizik. Uste dut gure eginkizuna ez dela kritika tekniko egitea, horretarako lanean aritu baitira kanpoko enpresa eta arloko udal teknikariak. Hori esanda, gaineratu behar dut plan honek ez duela ezertara behartzen, baizik eta esaten duela Udalak energia arloan hobetzeko nondik nora jo behar duen. Hori esanda, hobekuntza-jarduera orok alde aurreko balorazio tekniko izango du, garapen tekniko, eta, gero, hirigintza, mugikortasun eta ingurumen batzordean landuko da; eta horren guztiaren ondoren jarriko da martxan. Gu oso pozik gaude plan honekin, eredu bat delako, Eskoriatzak ez du inoiz horrelako planik izan eta, akatsen bat izan dezakeen arren, uste dugu aurrera egitea dela eta jasagarritasunean urrats bat egitea.*

10.- MAIATZAREN 28rako HAUTESKUNDE MAHAJETAKO KIDEAK HAUTATZEKO ZOZKETA.

Indarrean dagoen Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan xedatutakoa betez, Hautesle Erroldaren Bulegoko IDA_CELEC plataformaren bidez zozketa egin da maiatzaren 28ko hauteskundeetan eratu beharko diren hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko (UDAL HAUTESKUNDEAK ETA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK).

Zozketa eginda, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabaki du:

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Lehenengoa.- Alkateari eskuordetzea, Eskoriatzako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak lagunduta, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak alegazioak eta aitzakiak onartzeagatik hutsik gera daitezkeen karguak betetzeko pertsonak zozketaz hautatzeko ahalmena.

11.- GALDE-ESKEAK.

Hitza emanda, osoko bilkurara joan diren erretiratuen taldearen izenean hitz egiten duela dioen pertsona batek hartu du hitza: *duela hilabete egin zen osoko bilkuran erretiratuen talde batek parte hartu zuen, gaur ezin izan dira denak etorri, eta osoko bilkura horretan jubilatuen etxeko tabernari buruzko eskaera idatzi bat irakurri zen. Idazki horri sarrera eman zitzaion, baina ez da erantzunik jaso. Era berean, osoko bilkura horretan hala adierazi zelako, sarrera eman zitzaion beste idazki bati, argazki eta guzti, tabernako lokalaren egoeraren berri emateko. Azken horri ere ez zaio erantzunik eman, eta gaia aztertu den eta zein fasetan dagoen jakin nahi genuke.*

Josu Ezkurdiak erantzun du beste edozein eskaera bezala, aztertzen ari direla, tramitatzen ari direla, eta erabaki bat hartzen denean erantzungo dela.

Bertaratutako erretiratuen ordezkariak hitz egiten jarraitzen du: *Hemen dauden erretiratuek egin nahi duten galdera da, zein da egoera? Taberna irekitzeko planik badagoen jakin nahi dute, edo, beno, irekitzen ez den bitartean, beste plan alternatiboren bat dagoen, elkartzeko espazio partekatu bat izateko aukera emango dien plan bat. Azken batean, sozializatzeko espazio bat behar dute, adinekoak dira, Eskoriatzan ez dago irisgarritasuna bermatuta dagoen leku egokiturik... Taberna itxi zenetik, elkartzeko lekurik gabe geratu dira. Gabezia bat dagoela ikusten dugu. Beno, gu, talde feministatik, "zaintza" lantzen ari gara eta Eskoriatzan arreta jarri dugu "adinekoen eta erretiratuen zaintza" eta gabezia hori dagoela ikusten dugu, eta horregatik gure laguntza eskaintzen dugu eta Udalarekin lan egiteko prest gaude eta beraiek ere prest daude beharrezkoak ikusten diren ekarpen guztiak egiteko, beraien iritzia ere oso garrantzitsua baita. Eguraldi txarra egiten duenean, euria egiten duenean, hotz egiten duenean, ez dute non egon, tabernak ez dira tokirik egokiena euretako askorentzat adinagatik edo egoera pertsonalagatik. Beraientzako taberna bat botatzen dute faltan, taberna bat eurak biltzeko. Zaindu beharreko sektorea dela uste dugu, zaindu beharreko pertsonen kolektiboa direla, eta Udaletik arreta merezi dutela uste dugu.*

Bertan dauden hainbat emakumezko erretiratuk berretsi egin dute elkartzeko tokirik ez izatearen eta horretarako duten behararen kexa.

Bertaratutako erretiratuen izenen ari den talde feministako kideak berriz hitz egin du: *Gainera, taberna zein egoeratan dagoen ikusita, horren inguruan zer asmo dauden jakin nahi dugu, egokitzeko asmorik dagoen, aurreikusita dagoen... Egoera nahiko negargarria delako eta gure erretiratuek leku duinagoa merezi dutela uste dugulako. Halaber, galdetu nahi dizute ea ezagutzen duzuen erretiratuen tabernarik gabeko herririk. Gainera, emakumeak dira, batez ere, adin batetik aurrera irteteko, sozializatzeko, harremanak izateko, tabernetara sartzeko... arazoak dituztenak, eta erretiratuen tabernak eskaintzen zien erraz eta inolako arazorik gabe sartzeko espazio bat.*

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Feministen taldeko beste kide batek, erretiratuari gustura sentitzeko, elkartzeko eta sozializatzeko gune duina eskaini behar zaiela azpimarratu du.

Alkatea: ni ez nintzen osoko bilkura horretan egon, baina gaurkoan bilkurako akta onartu da, zeinean planteatzen dituzuen gaiak agertzen diren. Ez dut uste beharrezkoa denik esandakoa errepikatzea; izan ere, esan beharrezkoa esan zen, eta gauzak esan direnean, nahikoa dela uste dut. Hala ere, ni ez nintzen aurreko bileran izan, baina, badaezpada ere, argi utzi nahi dugu gaur egun tabernarik ez badago, horren arduradunak, kontratuaren esleipendunak, uko egin zuelako dela; ez da Udalak itxi zuelako. Udala orain konponbideak bilatzen ari da. Hori, lehenik eta behin, eta bigarrenik, zerbitzua utzi zuenak argudiatzen zuen arrazoietako bat da ez zela errentagarria, ez zuela bizitzeko nahiko dirurik sortzen. Orduan, horrek hausnarketa bat egitera ere eraman beharko gintuzke, taberna bai, baina gutako zenbat eta zenbat diren hortik pasatzen diren erretiratuak, jarduerak errentagarritasun ekonomiko nahikorik ez badu. Gero, erabat ados nago sozializazioarekin zerikusia duen guztiarekin, baina aipatu duzuen sozializazioa beste modu batera ere lor daiteke, ez dakit taberna ezinbestekoa den horretarako. Horrela, adibide gisa, orain proiektu berri bat jarri da martxan, MUGIMEN, eta zuetako batzuek, Udalari esker, jarduera fisikoa egiten duzue. Orduan, bitartekoak, egon badaude, eta funtzionatzen ez duen gauza bakarra, taberna da, lokala, eta hori izango da nire bigarren galdera, ea noren izenean zatozten, jubilatuen elkarteak hori kudeatzeko giltzak baititu, erretiratuak nahi bezala eta nahi dutenerako erabili ahal izateko. Orduan, agian, erretiratuak elkarera ere jo beharko zenukete lokal horiek erabili nahi dituzuela jakinarazteko, taichia edo beste jardueraren bat egiteko eskatu duzuen bezala, berdina, itxita dagoen jarduera bakarra tabernakoa baita. Lokalak ez daude itxita, taberna baino ez dago itxita eta itxita dago ekonomikoki errentagarria ez delako. Edo, hori da, behintzat, berak esaten zuena. Orduan, hortik hasita eta duela hilabete aurkeztu zenuten idazkiari dagokionez, eta ulertuko duzue, denbora behar da gauzak aztertzeke, eta are gehiago kontuan hartuta tartean Aste Santua egon dela. Nik, erretiratuak elkarrekin tabernarekin zer egin genezakeen jakiteko izan nuen lehen bilera Gabonetan izan zen, eta ondoren hainbat bilera izan ditugu. Bilera horietako batean taberna beraiek autokudeatzeko asmoa zuen proposamen bat egin ziguten, eta aztertu nahi zutela esan ziguten. Orain gutxi esan digute ezetz, ez dutela konpromisorik nahi. Orain arazoa gure esku dago, baina uste dut ulergarria dela guk denbora behar izatea gaia aztertzeke. Izan ere, oso ondo esan duzue, taberna horrek ez ditu baldintzak betetzen, eta gauzak ondo doazenean ez da ezer gertatzen, baina zerbait gertatzen denean... Madrilen gertatutakoaren adibidea daukagu. Horrek lizitazio publiko bat deitzea eskatzen du; horretarako, lehenik eta behin, lan tekniko bat egin behar da, argitaratu egin behar da, interesdunen bat egon behar da, norbait esleipendun izan behar da eta, azkenik, pertsona horrek gero borondate onez lan egin behar du, orain arte tabernak zuenak ez duena egin. Uste dut kontu horiek guztiak kontuan hartu behar direla, eta, horretarako, zuetako batzuk adibide zarete; izan ere, udaletxera zerbait eskatzera etorri zaretenean eman zaizuelako, zuetako batzuk horregatik zaudete taichin, eta zein lokaletan? Udalaren batean. Kezkatuta gu ere bagaude, baina erantzuna ez da egun batetik bestera eman daitekeen horietakoa. Eta berriro diot, ez zarete zuek bakarrik erretiratuengatik kezkatzen. 80 urtetik gorako pertsona guztiei, eta zuetako batzuek deia jasoko zenuten, deitu zaie jakiteko zein den beraien egoera eta ea Udal honen laguntzarik behar duten; eta 80 urtetik gorako guztiei deitu diegula ikusita, orain 75 urte edo gehiagokoei ere deitzea erabaki dugu. Izan ere, tabernarekin ez ezik, adinekoekin, bere osotasunean, ere kezkatuta gaude. Eta hor dago kontua guretzat, tabernarena ia anekdota bat da; eta lokala erabili nahi baduzue, eskatu besterik ez duzue egin behar. Eraikin horretan tabernako zerbitzua besterik ez da kendu, besterik ez. Lokal guztiak irekita daude, eta jubilatuen elkarteak ditu giltzak. Horregatik, haiekin akordio batera iristen bazarete, erabili ahal izango dituzue. Gu ez gara sartzen.

2023/04/25

Ohiko Udalbatza

Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Erretiratuei laguntzen dien feministen taldeko beste ordezkari batek azpimarratu du taberna behar den espazioa dela, eta ez dela huskeria. Eta dio: *Jende asko ez da erakundeetako kide, baina taberna ere erabiltzen zuen, nire amaren edo nire lagunen amaren kasuan bezala. Ados, gauzak ez dira egun batetik bestera egiten, baina zer epe dauden jakin nahi dugu, arazoa konpondu nahi dugulako. Gu ez gara sartuko zergatik itxi den, alde baten ala bestearen errua izan den, errealitatea da itxi egin dela, eta errealitatea da Eskoriatzak ez duela espaziorik euria egiten badu, edo bero egiten badu edo ospatzeko zerbait badago... askatasunez erabili ahal izateko, giltzak eskatu beharrik gabe, hau da, egoteko espazio bat izateko.*

Eztabaidak bere horretan jarraitzen du, eta alkateak azpimarratu du itxi den gauza bakarra tabernako zerbitzua dela, bertako lokala eta gainerako lokalak irekita eta jubilatuen elkartearen eskura daudela. Era berean, bertaratu diren erretiratuen kolektiboak eta haien ordezkariak azpimarratu dute tabernak zerbitzu gisa duen garrantzia Eskoriatzako erretiratu askorentzat, lokalaren egoera hain prekariora, eta beste aukera bat planteatzea komeni dela tabernarekin zer egin erabaki bitartean. Alternatiba horrek leku irekia eta sarbide errazekoa eskaini behar duela uste dute, eta bertara joan behar den bakoitzean giltzarik eskatzen ez ibili beharrekoa.

Alkateak argitu du lokal batzuen kudeaketa jubilatuen elkarteari lagata dagoela eta Udalak lagapen horren baldintzak errespetatu behar dituela, eta taberna zegoen beheko solairuko lokalak elkartearen esku daudela lokal horiek erabili ditzan, eta Udalak errespetatu egin behar duela lagapen hori. Jakinarazi du taberna lizitaziora aterako dela, baina ez dakigula noiz, lehenago lokalaren azterketa tekniko ere egin behar delako, eta behar diren jarduketak zehaztu eta baloratu tabernako jarduerarako baliagarria izan dadin.

Erretiratuek galdetu dute Udalak lokal horretan jardueraren bat egiteko asmorik duen.

Alkateak berriz ere esan du lizitaziora ateratzeko beharrezkoa dela alde aurretik lokalean jardutea eta gai hori dela oztopo denbora zehazteko, ezin duela esan noizko esleituko den zerbitzua, aurretik hobekuntza batzuk egin behar direlako. Hezetasunekin dagoen arazoa ekarri du gogora, taberna itxi aurretik zegoen arazoa; eta Udala zailtasunak izaten ari dela hezetasunak desagerrarazteko berme osoa eman dezakeen enpresa bat aurkitzeko. Amaitzeko, azpimarratu du interesa izanez gero jubilatuen elkartera jo dezaketela lokaletakoren bat erabiltzen utz diezaien; izan ere, gaur egun denak daude erabilgarri, eta elkarteak erabili ere erabiltzen ditu behar dituenean.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:55ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 28/03/2023..

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 18 de abril de 2023.

De forma expresa se da cuenta de la resoluciones por las que se aprueban los siguientes expedientes:

- Liquidación del presupuesto 2022
- Modificación de créditos N° 2
- Modificación de créditos N° 3
- Modificación de créditos N° 4

Todos los presentes se dan por informados.

3.- REGISTRO DE INTERESES (Registro de Actividades y Registro de Bienes Patrimoniales) APROBACION DE MODELOS DE DECLARACIONES.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 75.7º de la Ley 7/1985, del 2 de abril, de Bases de Régimen Local, los/las representantes locales deberán formular las siguientes declaraciones:

- a) Declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre cualquier actividad que les proporcione o pueda proporcionar ingresos económicos. Esta declaración se inscribirá en el denominado Registro de Actividades.
- b) Declaración sobre sus bienes patrimoniales y de la participación en las sociedades de todo tipo (con información de las sociedades por ellas participadas) y de las liquidaciones de los impuestos sobre la Renta, Patrimonio y, en su caso, Sociedades. Esta declaración se inscribirá en el denominado Registro de Bienes Patrimoniales.

En el mismo artículo se dispone que las declaraciones se llevarán a cabo antes de la toma de posesión, con ocasión del cese y al final de su mandato. Asimismo, se procederá a su cumplimentación cuando se modifiquen cualquiera de las circunstancias de hecho contenidas en las mismas. En todo caso, dichas declaraciones se efectuarán en los modelos aprobados por el Pleno y con el régimen de publicidad dispuesto en el mismo artículo 75.7º de la Ley 7/1985, del 2 de abril, de Bases de Régimen Local.

2023/04/25
Ohiko Udalbatza
Pleno Ordinaria



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

Por su parte, la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno en su artículo 8.1 h) establece la obligación de las entidades locales de proceder a la publicación de las declaraciones de bienes y actividades de los representantes locales en los términos previstos en la Ley 7/1985, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local. Con análoga regulación, el artículo 52 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi

